

Musika Eskola



Escuela de Música

ERANDIOKO UDAL MUSIKA ESKOLAKO PLAN PEDAGOGIKOA

1.- Testuinguruaren analisisia

2.- Ikastetxea

2.1 Analisisia

2.2 Deskribapena

3.- Ezaugarriak

4.- Ikasketa-eskaintza

5.- Ebaluazioa

Erandioko Udal Musika Eskolak zentroaren errealitatea islatu nahi du Proiektu honetan, aurretiko esperientziak kontuan hartuz, ingurua aztertuz eta gaur egunera arteko bilakaera kontuan hartuz, gure ikasleen eskaerei erantzun koherentea eta egokia eman ahal izateko.

Dokumentua funtzionala da, eta aldian-aldian ebaluatu eta errebisatu beharrekoa. Izan ere, baliteke aspektu batzuk egokitu edo berriz definitu behar izatea.

1.- TESTUINGURUAREN ANALISIA

Erandioko Musika Eskola Erandioko udalerrian dago, Bilbotik 8 kilometrora. 24.240 biztanleko herria da eta hainbat auzo ditu: Altzaga edo Desertu (udaletxea dagoen lekua), Astrabudua, Erandiogoikoa, Arriaga, Goierri, Lutxana-Enekuri eta Asua-Lauroeta.

Udalerriak 17,56 km²-ko lur-hedadura dauka. Honakoak ditu mugakide: iparraldetik Urduliz, Laukiz eta Berango; hegoaldetik Bilbo; ekialdetik Loiu eta Sondika, eta mendebaldetik Leioa eta Getxo. Biztanleria nahiko sakabanatua dago, eta Bilbo eta Getxorekin ondo komunikatua egon arren, udalerriko auzoen arteko komunikazioa eta ikastetxerako komunikazioa ez dira onak. Arazo hori apur bat arintzeko, azkenaldian autobus zerbitzua jarri du martxan udalak.

Erandiok 24.000 biztanle baino pixka bat gehiago ditu. Biztanleen ia % 25 euskaldunak dira; gutxi gora behera % 10ek goi mailako ikasketak dituzte eta biztanleria aktiboa % 50etik gorakoa da.

Erandioko Udal Musika Eskolak Josu Murueta kultur etxean dauka egoitza nagusia, Astrabuduako Josu Murueta plazan, baina Altzagako Bekoa ikastetxean ere badauzka instalazioak, Desanexio kaleko 4 zenbakian. Udalerrri osoko eta ondokoetako ikasleak joaten dira.

Eremua ez da euskalduna, berez, baina ikasle gehienek D ereduan ikasten dute, beren ikastetxeetan.

2.- IKASTETXEA

Gure udalerrian musika irakasten duen zentroa gara.

2.1 ANALISIA

1985-86 ikasturtean Erandioko musika elkarteak sortu zen. Ordura arte Aldekoa ikastetxe publikoko guraso elkarteak antolatutako musika eta ballet eskolen kudeaketa bere gain hartu zuen.

88-89 ikasturtean, Udalak musika irakasle plaza bat bat atera zuen, udalerriko musika-irakaskuntza antolatzen hasteko.

89-90 ikasturtean eskaintza zabaldu zen, irakasle gehiago izateko.

91-92 ikasturtean udal akademia ofizializatu egin zen eta 66ko planaren Oinarrizko graduako Kontserbatorio izatera pasa zen. Honakoak irakasten hasi ginen: gitarra, pianoa, akordeoia, biolina, flauta, klarineta, saxoa, tronpeta, solfeo eta abesbatza. Hurrengo urteetan trikitixa, panderoa eta bateria ere ematen hasi ziren.

92-93 ikasturtean oinarrizko LOGSE emateko baimena jaso zen.

Ikasturte horretatik aurrera, bi ikasketa planetan eman ziren eskolak, 66ko dekretua eta LOGSE.

93-94 ikasturtean Musika Eskola bihurtu ginen. Ikasturte horretatik aurrera matrikula guztiak "LOGSE EZ ARAUTUA" ikasketa-planaren baitan egin ziren. LOGSE ARAUTUAREN eta 66 Dekretuaren baitako eskolak mantendu ziren, bukatu arte.

2.2 IKASTETXEAREN DESKRIBAPENA

Erandioko udal musika eskolak bi lekutan egiten du lan. Egoitza nagusia Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean dago. Idazkaritza, ekitaldi aretoa, eta hamaika gela daude:

Musika-hizkuntza eta irakasgai teorikoak taldeka emateko gelak.

Bateria eta talde modernoa/konboa lantzeko gela espezifikoa.

Tresna/ganbera irakaskuntzarako gelak.

Talde eta abesbatzen entseguetarako balio anitzeko gela.

Taldeentzako, entzunaldi eta kontzertu publikoetarako ekitaldi aretoa. Edukiera: 200 pertsona.

Bekoa ikastetxean beste zortzi gela daude. Horrela, Erandioko bi auzo jendetsuenei zerbitzua eskaintzen zaie.

Musika-hizkuntza eta irakasgai teorikoak taldeka emateko gela.

Bateria jotzen ikasteko gela espezifikoa.

Tresna/ganbera irakaskuntzarako gelak.

3. EZAUGARRIAK

Gure ikastetxearen bidez lortu nahi ditugun xedeak:

- Musikaren bidez askatasun pertsonala, erantzukizuna, errespetua, berdintasuna eta elkarbizitza sustatzea.
- Aniztasuna errespetatu eta kulturartekotasuna sustatzea, beste kultura batzuk ezagutu, errespetatu eta elkarrekin bizitzen ikasteko estrategia gisa.
- Ikasleek euren buruaren irudi positibo bat eraikitzea, bakoitzak bere mugak eta bere aukerak ezagutzea.
- Lan pertsonalaren erritmoa errespetatzea, bakoitzak bere burua ebaluatzea eta dituen aukeren arabera trebetasunak garatzea.
- Parte-hartze aktiboa eta elkartasun solidarioa baloratzea eta besteekiko diskriminazio oro saihestea.
- Ikasleak beren egitekoetan saiatzea eta hartutako konpromisoen ardura hartzea.
- Irakasleek kalitatea etengabe hobetzeko apustua egitea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eraginkortasuna hobetzeko, bai irakaskuntza ez arautuan, baita irakaskuntza arauturako orientazioan ere.
- Adin guztietako ikasleek kalitatezko irakaskuntza jasotzea, bakoitzaren aukeren eta lanaren arabera ahalik eta emaitzarik onenak lortzeko.
- Euskal musikaren kultura sustatzea udalerriko beste erakunde batzuekin lan eginez.
- Familiekin batera lan egitea haurren musika heziketan.
- Hainbat estiloko taldeetan parte hartzea sustatzea.
- Ikasleek, irakasleek eta familiak musikaz gozatzea.

4. IRAKASKUNTZAREN ANTOLAMENDUA

Erandioko Udal Musika Eskolan irakaskuntza hiru mailatan antolatua dago, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuan arautzen denaren arabera.

1. Maila/Musika eta mugimendua

4, 5 eta 6 urteko hurrei eskainia.

Maila honetan musikara hurbiltzen dira. Psikomotrizitatea eta elementu musikalak lantzen dituzte, hala nola ahotsa, entzumena eta erritmoa, abesti eta entzunaldien bidez. Idazketa musikala ikasteko grafiak ezagutzen hasiko dira.

I. Mailaren barruan beste 3 maila daude, adinaren arabera. Asteroko saioak honela antolatuko dira:

ADINA	SAIOEN IRAUPENA
4 urte	45 minutuko saio bat astean
5 urte	45 minutuko saio bat astean
6 urte	45 minutuko 2 saio astean

6 urteko ikasleek ikasturtean hainbat saio egiten dituzte musika-tresnekin. Horrela, tresna bakoitzerako gela espezifikoko saioen bidez edota irakasleek emandako kontzertuen bidez, eskolan lantzen diren tresna guztiak entzun eta manipulatzeko aukera izango dute.

Behin I. Maila bukatuta, II. Mailan lekua ziurtatuta daukate. Hala ere, ezin da ziurtatu leku hori aukeratutako tresnarako izango den.

II. Maila

Eskola honetan ikasketak hasten dituzten 7 urtetik gorakoentzat, adin mugarik gabe.

Maila honetan ikasleek tresna erabiltzen ikasiko dute, eta hori izango da ikaskuntza nagusia. Hala ere, ganbera-taldeetan, tresna-taldeetan edota abesbatzan izena emateko aukera izango dute, garapena egokia bada eta beharrezko gaitasunak eskuratuta badituzte.

Tresna nagusiaren funtzionamendua ikasteko saioak 30 minutukoak izango dira.

Musika Eskolan eskaintzen diren tresnen zerrenda:

Akordeioa

Bateria

Klarinetea

Zeharkako flauta

Gitarra

Gitarra elektrikoa

Panderoa

Pianoa

Saxofoia

Trikitixa

Tronpeta

Biolina

Biolontxelo

Musika-hizkuntzaren ikasgaia 4 mailatan ematen da maila honetan. Lehenengo hirurak derrigorrezkoak dira eta laugarrena aukerakoa (gomendagarria).

Lehenengo hiru mailatan pertsona bakoitzeko dedikazio-denbora 1,5 ordukoa da. Asteko 2 saio egiten dira, bakoitza 45 minutukoa, eta asteko ordubeteko saio bat 4. Mailakoen kasuan.

Era berean, ikasle helduentzako talde espezifikokoak antolatuko dira.

Musika Eskolan eskaintzen diren taldeen zerrenda:

Triki-pandero taldeak

Haize-taldeak

Perkusio-taldeak

Haize banda instrumentala

Ganbera-musika

Konboa

Haurren abesbatza

Helduen abesbatza

Gitarra-taldeak

Akordeoi-orkestra

Soka-taldeak

Pertsona bakoitzeko dedikazio-denbora taldearen arabera ezarriko da, eta zentroak zehaztuko du.

III. Maila

Eskolako bizitza musikalean parte hartzeko beharrezko ezagutzak eta baliabideak eskuratu dituen eta tresnaren ikaskuntzan sakondu nahi duen edozein pertsonari zuzendua.

III. Maila honetan Eskolako edozein taldetan parte-hartzea lehenetsiko da, talde-lana sustatuz.

Triki-pandero taldeak

Haize-taldeak

Perkusio-taldeak

Haize instrumental banda

Ganbera-musika

Konboa

Helduen abesbatza

Gitarra-taldeak

Akordeoi-orkestra

Soka-taldeak

Pertsona bakoitzeko dedikazio-denbora taldearen arabera ezarriko da, eta zentroak zehaztuko du.

5.- EBALUAZIOA

Ikasturtean zehar bi aste ezarriko dira familiei helburuen lorpenaren berri emateko eta txostenak emateko: urtarrilean eta ekainean. Tutoreek (tresna nagusia irakasten dutenek) emango dute II. Mailan egiten diren ikasgai guztien berri. I. Mailan musika-hizkuntzako irakasleak izango dira tutoreak.

Txostenak entregatu aurretik, ebaluazio-batzordea izango da, eta irakasleek ikasleen ebaluazioaren eta errendimenduaren inguruan hitz egingo dute.

Tresnen kasuan, ebaluazioa jarraitua izango da. Kontzertuak eta entzunaldiak egingo dira.

Musika-hizkuntzako ikasleen kasuan, ebaluazioa jarraitua izango da eta ikasgelan probak egingo dira.